

GIDA LABURRA PARTE HARTZEKO ESKAERA BETETZEKO

Lehen-lehenik, segurtatu behar dugu beharrezkoa den **dokumentazio guztia bildua** dugula formatu digitalean (**eskaneatua**), izen emateko eskaera betetzen hasi baino lehen. Dokumentazio hori honela banatzen da: “**Betebeharrak**” eta “**Merezimenduak**”:

• Betebeharrak:

- NAN edo bestelako nortasun agiria (AIZ, pasaporte eta abar)
- Behar den titulua
- Prestakuntza pedagogikoaren ziurtagiria (Masterra, IGA eta abar)
- [Ordainketa gutuna/k](#)


• Merezimenduak:

- Lan esperientzia
- Beste titulu batzuk
- Ikastaroak, prestakuntza etengabea eta abar

Guztia prest dugunean, eskaera betetzen hasiko gara [Tramitatu](#) botoia sakatuta fitxa honetan berean; handik, urrats hauek egingen ditugu:

1. Zure burua **identifikatu** behar duzu, bide hauetariko bat segituz:

- Ziurtagiri digitala
- Cl@ve sistema
- NAN + **Nafarroako Ogasuneko PIN**aren azken 4 digituak



The screenshot shows the 'Registro General Electrónico' page on the 'navarra.es' website. At the top, there are navigation links for 'NAVARRA', 'TRÁMITES', 'TEMAS', 'GOBIERNO', and 'ACTUALIDAD'. Below this, there is a search bar with the text 'Utilice el buscador' and 'introduzca palabra/s'. The main content area is titled 'Registro General Electrónico' and contains two columns. The left column is titled 'Certificado de Usuario' and contains the text 'Utilice un certificado digital válido para acceder.' and 'Consulte las [certificaciones admitidas](#) para las tramitaciones on-line.' with a 'Continuar' button. The right column is titled 'Otros accesos' and contains a 'DNI + PIN' input field with a right arrow and the 'cl@ve' logo.

2. Geure burua identifikatu ondoan, **hurrengo pantailara** eginen dugu aurrera; bertan agertuko da zer oposiziotan ari garen izena ematen. Eremuak aitzinetik definituak ditu eta “Hurrengoa” baizik ez dugu zanpatu behar.



navarra.es

Castellano Euskara Français English
Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK GAIK GOBERNUA AKTUALITATEA
Laguntzak eta bekok Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

Oposaketan parte hartzeko eskaera [Cerrar](#)

Eskabidea bete

– Jomuga (*)

HEZKUNTZA DEPARTAMENTUA/SERVICIO DE SELECCIÓN Y PROVISION DE PERSONAL DOCENTE

– Eskabidearen laburpena: (*):

Irakasleen oposaketan parte hartzeko eskaera

(*) Nahitaezko datuak

Aurrekoa Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Berariazko datuak
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiatagiria

3. Hurrengo pantailan gure **datu pertsonalak** agertzen dira eta hautatu behar dugu eskaera gure izenean edo beste inor ordezkatzu giten dugun:



navarra.es

Castellano Euskara Français English
Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK GAIK GOBERNUA AKTUALITATEA
Laguntzak eta bekok Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

Oposaketan parte hartzeko eskaera [Cerrar](#)

Datu pertsonalak

Esan ezazu eskabidea zure ordez edo beste baten ordez aurkezten duzun:

Neure izenean Honako honen ordezkari

(*) Nahitaezko datuak

– Eskabidearen aurkezlea:

NAN/IFZ/IFK (*):

Izena (*):

Lehen deitura (*):

Bigarren deitura:

Helbide elektronikoa:

Telefonia (*):

Kalea (*):

Zenbakia:

Eskailera/Solairua:

Probintzia (*): NAVARRA

Herria (*): BERRIOZAR

Posta Kodea (*): 31013


Aurrekoa Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Berariazko datuak
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiatagiria

4. "Hurrengoa" sakatuta agertzen zaigun pantailan **zenbait ekintza** egin behar ditugu:

- A) **Sakatu** aitortenaren laukia. Ekintza honen bidez, **aitortzen ari gara** ez gaudela inolako desgaitasun egoeratan; **ez da beharrezkoa horren gaineko dokumentu gehiagorik aurkeztea**.

 Castellano | Euskara | Français | English
Bilatzailea | Sartu hitzak | Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK **GAIAK** GOBERNUA AKTUALITATEA
Laguntzak eta bekak Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

Oposaketan parte hartzeko eskaera

Berriazko datuak

Espesialitateak

Horako hau adierazten dut: Lanpostuaren eginkizunetan aritzeko gaitasun fisikoa eta psikikoa badudala, ez negoela eginkizun publikoetan aritzeko ezgaitu edo gabetua, ezta administrazio publikoren baten zerbitzutik bereizia ere, eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean Hezkuntza kontseilariaren ekainaren 7ko 51/2018 Foru Aginduan ezarritako beharkizun eta baldintza guztiak betetzen ditudala, eta badudala ondoko espezialitate (et)an sartzeko deialdian eskatzen den titulazioa, reinen kopia dakart:

Partaidetza modua

Prozedura mota

Desgaitasunaren datuak

%33ko edo gehiagoko desgaitasun egiaztatua

Datu pertsonal osagarriak

Nazionalitatea

Nortasun agiria

Tasen ordainketa

Aditzera ematen dut, nire erantzukizunpean, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuaren abenduaren 26ko 8/2019 Ebazpenean azterketa eskubideak ordaintzeari buruz aipatzen den salbuespenaz baliatzeko asmoz, ez dudala hilabetean lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako diru-sarrerarik izan, lan-eskatzaile gisa inskribaturik emandako denboran (ikusit honi erantsita doan agiria, Enplegu Zerbitzuak egina)

Ordainketa-gutuna

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Berriazko datuak**
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiatagiria

B) Hautatu zer txandatan emanen dugun izena:

- a. Librea (karrerako funtzionarioa ez den edonor)
- b. Igoera (A mailara igo nahi duten B mailako funtzionarioak)
- c. Desgaitasuna duten pertsonendako txandak (lanpostuen erreserba)

Partaidetza modua

Prozedura mota

Desgaitasunaren datuak

%33ko edo gehiagoko desgaitasun egiaztatua

- C) Hautatu nazionalitatea
- D) Erantsi **NANA edo dokumentu baliokidea**, eskaneatua
- E) Ordaintzetik salbuetsia (hala bazaude). Erran adierazitako arrazoiengatik **tasak ordaintzetik salbuetsirik** zauden
- F) Sartu **ordainketa-gutunak**. **Ordainketa-gutun bat** egin beharko da izena ematen dugun espezialitate eta hizkuntza bakoitzeko.

Datu pertsonal osagarriak

Nazionalitatea

Nortasun agiria

Tasen ordainketa

Aditzera ematen dut, nire erantzukizunpean, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuaren abenduaren 26ko 8/2019 Ebazpenean azterketa eskubideak ordaintzeari buruz aipatzen den salbuespenaz baliatzeko asmoz, ez dudala hilabetean lanbide arteko gutxieneko soldatetik gorako diru-sarrerarik izan, lan-eskatzaile gisa inskribaturik emandako denboran (ikusi honi erantsita doan agiria, Enplegu Zerbitzuak egina)

Ordainketa-gutuna

G) Hautatu **espezialitate bat edo gehiago**, behar diren laukitxoak markaturik.

Espezialitateak

BIGARREN HEZKUNTZAKO IRAKA SLEAK

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA / EUSKARA

BIOLOGIA ETA GEOLOGIA / GAZTELANIA

ENPRESEN ADMINISTRAZIOA / GAZTELANIA

EUSKAL HIZKUNTZA ETA LITERATURA (NAFARROA) / EUSKARA

FABRIKAZIO MEKANIKOAREN ANTOLAKETA ETA PROIEKTUAK / GAZTELANIA

FILOSOFIA / EUSKARA

FILOSOFIA / GAZTELANIA

FISIKA ETA KIMIKA / EUSKARA

FISIKA ETA KIMIKA / GAZTELANIA

FRANTSESA / EUSKARA

FRANTSESA / GAZTELANIA

GAZTELANIA ETA LITERATURA / EUSKARA

GAZTELANIA ETA LITERATURA / GAZTELANIA

GEOGRAFIA ETA HISTORIA / EUSKARA

GEOGRAFIA ETA HISTORIA / GAZTELANIA

GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN ESKU HARTZEA / EUSKARA

GIZARTEAN ETA KOMUNITATEAN ESKU HARTZEA / GAZTELANIA

GORPUTZ HEZKUNTZA / EUSKARA

GORPUTZ HEZKUNTZA / GAZTELANIA

HEZKUNTZA ORIENTAZIOA / EUSKARA

HEZKUNTZA ORIENTAZIOA / GAZTELANIA

INFORMATIKA / GAZTELANIA

INGELESA / EUSKARA

INGELESA / GAZTELANIA

LANERAKO PRESTAKUNTZA ETA ORIENTAZIOA / GAZTELANIA

LATINA / GAZTELANIA

MARRAZKETA / EUSKARA

MARRAZKETA / GAZTELANIA

MATEMATIKA / EUSKARA

MATEMATIKA / GAZTELANIA

MERKATARITZAKO ANTOLAKETA ETA KUDEAKETA / GAZTELANIA

NEKAZARITZAKO EKOIZPENEKO PROZESUAK / GAZTELANIA

OSTALARITZA ETA TURISMOA / GAZTELANIA

SISTEMA ELEKTROTEKNIKO ETA AUTOMATIKOAK / GAZTELANIA

TEKNOLOGIA / EUSKARA

TEKNOLOGIA / GAZTELANIA

LANBIDE HEZIKETAKO IRAKA SLE TEKNIKOAK

INFORMATIKAKO SISTEMA ETA APLIKAZIOAK / GAZTELANIA

KOMUNITATEAREN ZERBITZUAK / GAZTELANIA

MAKINEN MEKANIZAZIOA ETA MANTENTZE-LANAK / GAZTELANIA

NEKAZARITZAKO EKOIZPENEKO LANAK ETA EKIPAMENDUAK / GAZTELANIA

OSASUN ETA LAGUNTZA PROZEDURAK / GAZTELANIA

- H) Prestakuntza pedagogikoa: aukeratariko bat hautatu behar da, behar den **prestakuntza pedagogikoa egiaztatzeko** (Masterra, IGA eta abar)

Baldintzak

Prestakuntza pedagogikoa

Ziurtatzen dut:

- Irakasle ibili izana, 2009ko urriaren 1a baino lehen, 12 hilabetez gutxienez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan edo Babxilergoan, Lanbide Heziketan edo Hizkuntza Eskola Ofizialetan. (Baldintza hori betetzeko ez da beharrezkoa zerbitzuak egin izana izangaiak sartu nahi duen kidego berean, baizik eta zerbitzuak aipatu kidego horietarik edozeinetan egin izana).
- Titulu hauetariko bat edukitzea, 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik: maisu-maistra diploma, Pedagogia eta Psikopedagogiako lizentzia, edo barnean prestakuntza pedagogikoa eta didaktikoa hartzen duen lizentzia.
- Irakaskuntzako gaitasun agiria edukitzea edo Irakaslanerako espezializazioaren titulu profesionala, 2009ko urriaren 1a baino lehenagotik.
- Unibertsitateko master titulu ofiziala edukitzea, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Babxilergoko, Lanbide Heziketako eta Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen lanbide arautuetan aritzeko gaitzen duena.
- Unibertsitateko titulurik izan gabe Lanbide Heziketako irakaskuntzetan sartzeko irakaskuntzarako titulu baliokidea dutenentzat: irakasle ibili izana, gutxienez ere hamabi hilabetez, behar bezalako baimena duten irakaskuntza arautuko ikastetxe publiko edo pribatuetan, Lanbide Heziketako edo Kiroletako ikasmaita eta irakaskuntzetan.

- I) Erantsi **dokumentu eskaneatuak**, bakoitza dagokion atalean, mota bakoitza bereizirik:
- a. **Tituluak.** Titulu bakoitza orri guztiak dauzkan dokumentu bakarrean agertu behar da.
 - b. **Ikasketa-espedientea.** Espediente bakoitza orri guztiak dauzkan dokumentu bakarrean agertu behar da.
 - c. **Hizkuntzen gaineko egiaztagiria edo tituluak.** Atal honetan tituluak aurkeztuko dira, hizkuntzetako prestakuntza behar duten lanpostuetara aurkezteko betebeharren egiaztagarri.
 - d. **Esperientziaren ziurtagiriak.** Nafarroako ikastetxe publikoetan esperientzia izanez gero, hura ofizioz jasoko da, departamentuaren artxiboetatik.
 - e. **Bestelako dokumentuak,** puntuatzen ahal den prestakuntzari dagozkionak. Gomendagarriena da artxibo bat gehitzea, eta hartan gure ustez puntuatzen ahal diren dokumentu guztiak sartzeara.

Baremazio Batzordeak du espediente bakoitza aztertuko eta dokumentazio egokiaren gaineko erabakia hartuko; beraz, dudarik izanez gero, **gure iritziz puntuatzen ahal den guztia** aurkeztu beharko dugu, batzorde horrek azter dezan.

Erantsitako agiriak

Eskatzen den titulua

Alegatutako tituluaren ikasketa-
espedientea

Euskararen, ingelesaren,
frantsesaren eta alemanaren
ezagutza egiaztatzeko titulazioak

Irakasle lanetan izandako
esperientzia

Etengabeko prestakuntza

Dokumentuak **dagozkien laukitxoetan sartzeak** lagunduko du balorazioa **modu efizienteagoan** formalizatzen.

5. Behin dokumentu guztiak sartuta **azken pantailara** ailegatuko gara; bertan egiaztatzen ahalko dugu **sartu ditugun datu guztiak zuzenak diren**, eta erantsitako dokumentuen zerrenda gehitu.

– **Aurkeztutako dokumentuak**

Exención de tasas - Captura2 eus.jpg
Título - Captura3 eus.jpg
Expediente académico - Captura2 eus.jpg
Conocimiento de idiomas - Captura3 eus.jpg
Documento de identidad - Captura3 eus.jpg

– **Datu babesari buruzko informazioa**

Tratamenduaren arduraduna	AEPD fitxategia: BD Dokumentuen Erregistroa Arduraduna: Argibide eta Erregistro Bulegoa.
Tratamenduaren xedea	Pertsonen datuak bildu eta eguneratzea Nafarroako Gobernuko Administrazioari egindako eskaerak tramitzeko.
Tratamenduaren legitimazioa	Arduradunaren interes legitimoa eta legezko betebeharrak betetzea
Hartzaileak (lagapenak edo transferentziak)	Ez zaizkie datuak hirugarrenei lagako, salbu legezko betebeharra badago
Interesdunen eskubideak	Datuak zuzendu eta deuseztatzeko eta haietara iristeko, baita informazio gehigarrian adierazitako eskubideak ere.
Argibide gehigarriak	Erakutsi informazio gehigarria

Irakurri ditut eta onartzen ditut **dokumentuen egiazkotasunari. (Ikus baldintzak)**

Erantzuna bide telematikotik eta berresten dut badudala [Gaitutako Helbide Elektronikoa](#) eta harpidetua nagoela [Nafarroako Gobernuaren jakinarazpen elektronikoko prozeduretan.](#)

Dokumentuen egiazkotasunari buruzko baldintzak irakurri eta onartu ondotik, **eskaera“Sinatzea eta igortzea”** baizik ez da falta. Horrek ziurtagiri bat sorraraziko digu, prozesuan izena zuzen eman dugula bermatzen diguna.


Momentu horretatik aitzina izena emanda gaude, eta onartuen behin-behineko zerrendak argitaratu zain geldituko gara, orduan egiaztatzen ahalko baitugu gure espedientea eta gure eskaera zuzenak diren edo zuzenketaren bat behar ote duten.

NOLA ZUZENDU PARTE HARTZEKO ESKAERA, JADANIK AURKEZTU DUGUNEAN?

Prozesu honetan **ez da posible jadanik aurkeztu dugun eskaera editatzea edo berregitea**; beraz, zerbait zuzendu nahi izanez gero, prozesu guztia berritik egin beharko dugu eta **beste eskaera** bat sortu, lehengoa sistematik **osotara ezabatzea** ekarriko duena.

Horrenbestez, ez dugu parte hartzeko eskaera aldatzen ahal, berria egin baizik, aurrekoan sartutako datu eta dokumentu guztiak berriz ere izanen dituen.

Eskaera bat egitera goazenean, aurretik beste bat gauzatuta, **sistemak mezu hau erakutsiko digu**:



navarra.es

Castellano Euskara Français English
Bilatzailea Sartu hitzak Bilatu

NAFARROA ZERBITZUAK GAIK GOBERNUA AKTUALITATEA
Laguntzak eta bekak Kontratazioak Enplegu publikoa Zerbitzuak

Oposaketan parte hartzeko eskaera

Berariazko datuak

— Espezialitateak —

Kasu!

Eskabide bat dago oposizioen oraingo deialdian. (2020/76915)

[Hemen](#) kontsulta dezakezu zure aurreko eskabidea.

Beste eskabide bat aurkeztu nahi baduzu aurrekoa deuseztatuko da eta alde batera utziko dira hartaraino aurkeztutako datu eta dokumentuak.

Parte hartzeko, lagun bakoitzeko eskabide bat hartuko da kontuan, eta aurkeztutako azken eskabidea izanen da baliozkoa

Sakatu Deuseztatu, beste eskabide bat egin nahi ez baduzu

Jarraitu Deuseztatu

Aurrekoa Hurrengoa

Jarraitu beharreko urratsak

- 1 - Eskabidea bete
- 2 - Datu pertsonalak
- 3 - Berariazko datuak**
- 4 - Sinatu eta igorri
- 5 - Egiaztagiria

Hartara, prozesuarekin segitzen badugu **onartzen ariko gara osotara ezabatzea** aurkeztu dugun aurreko eskaera.

Nolanahi ere, azken eskaera baizik ez da baliozkotzat hartuko.